

Jaunak eta andereak, eguerdi on !

Behin bazen, Amikuzen, Arruta Sarrikota herrian hain zuzen, mutiko pottolo bat: Louis, 1952an sortua. Entzun dugunaren arabera, Louis herabea zen. Norbaitek zerbait galdetzen ziolarik, matela kuskua gorritzen zitzaizkion beharri puntetaraino. Halaber mintzatu behar zuelarik, elea nekez jalgitzen omen zitzaion...

Irakurri izan dut liburuan: «Ez da herabea bezalakorik bat-batean gogoan duenaren zirt-zart erraiteko!» eta nik emenda nezake «Ez da herabea bezalakorik abenturazale bilakatzeko».

Delako mutiko herabeak bere abentura handia gaztetxo zelarik hasi zuen, bere lizeoan “Club Théâtre” bat bazegoelako. Eta antzerki atelier hari esker, bapateko jokia, txinatar itzalak, maskara, musika, kantua dastatu zituen.

Gero eta gehiago gustatzen zitzaion artearen mundu hark laguntza ekarri zion bere ikasketa teknikoen segitzeko eta azterketaren gainditzeko.

Soldadogoa Alemanian egin zuen.

Handik itzultzean eta “Dessinateur industriel” gisa lanean hastean, gure Louis gizon gazteak kontzientzia hartu zuen euskalduna zela eta euskararen serioiki ikasten hasi zen. Handik laster, Iparraldeko Gau Eskoletako langile bihurtu zen, koordinaketa lanak kudeatuz eta Hegoaldean gaindi maiz ibiliz.

Denbora berean, euskal antzerki mundua kurriturik, txotxongiloari ere hurbildu zitzaion. eta behin, marionetaren bitartez, ipuinarekin topo egin zuen.

Eta Louis, KOLDO bilakatu zen Koldo Amestoy.

Hemengo eta mundu zabaleko ipuinen eta kondairen irakurtzen eta lantzen hasi zen, eta gero, bere lehen entseiuak irratiaren bidez egin zituen. Eta ondotik, hara egun handia: publikoaren aitzinean kontatzen hastea! 1980a zen...

Eta hasian hasi, berrogei urtez alor beraren jorratzen eta loratzen ari izan da! Hauxe abentura! Bai, zinez abentura paregabea! Behar zuen barne-indar, kemen, sineste, talendu, bide berezi horren hartzeko eta hain luzaz irauteko. Biba hi, Koldo!

Bertsularitza, ahozko literatura den bezala, ipuingintza, berdin berdina. Koldo Amestoy, lehen-lehenik kontalaria dugu, errotik kontalaria.

Xehetasun guzietan sartu gabe, eskaini dizkigun azken ipuinaldien izenburuak oroitaraziko dizkizuet: *Biderditan*, *Harriola Marriola*, *In Vino Fabula*, *Martintxok «Txo»*. Parte hartu zuen ere *Laida pilota* Pierpol Bertzaizen ikusgarrian.

Baina Koldo Amestoy liburu idazlea dugu ere. Bost bederen zor dizkiogu: *Dena dela Lapurdiko*, *Dena dela Baxenabarreko*, *Zeharbideko berri*, *Erran bezala* eta *Esperantza*, azken hau Asisko Urmenetaren marrazkiekin.

Koldo Amestoyek, bestalde, bere bost egin ahalak egin zituen festibalak antolatzen, hala nola *Hitza Pitz* Hazparnen, *Hitzemana* Biarritzen eta *Hitzabil* berriz ere Hazparne aldean. Eta beste zenbat horrelako, zazpi probintzietan bezala, Frantzian eta frankofonian.

Erran behar da, kantuak dion bezala « *Gazte naiz ta lorios, izpiritua kurios* » Koldok kuriostasun handia baduela, munduko kulturen ezagutzeko jakin-mina. Horretarako da beti gazte egonki !! Koldo frangotan bakarka ari da bainan gustatzen zaizkio ere egitasmo berriak eta partekatuak, dantzari, musikari, kantari,

eskultore, edo berdin arkitekto batzuekin. Bai benetako euskal anbasadorea dugu munduan zehar dabilalarik beste kondalari anitz topatuz eta ipuin saioak eskainiz, beti Euskal Herrian haziak.

Ez ditugu ekitaldi hauek oro aipatzen ahal bainan bi adibide eder nahi ditut zuekin partekatu : bat duela bi urte abiatu zuena, Michèle Bouhet, Akitania berriko bi punteetako biztanleekin egin elkarrizketak abiapundu gisa hartuz, bi eskuz idazlanak loratu dituzte, ikusgarri bat asmatu eta liburu bat argitaratu ere...

Azkenik, lan pollit baten prestatzen ari da, Elkano nabigatzaileak munduari lehenengo aldiz itzulia eman zioneko 500 urteak direla ere. Koldok hain maite duen itsaso zabalari begira, hitzak ontu ditu Nerea Alberdi biolin jolearekin topo eginez, hitzen musika uhainetan gaindi margotuz.

Bai Koldoren lana joria da, hitzak ura dutxulutik bezala heldu zaizkio ; ipui bakoitzean labirinto batean sarrarazten gaitu, bere irudimenarekin gure ametsak hazteko eta gero ilunabarrak gauari eskaintzeko.

Koldo Amestoyek, bere ipuinaldiak, frangotan, hitz hauekin bukatzen ditu:

*“Hori hala bazan edo ez bazan, sar dadila ez dakit nungo kalabazan”*

Nire azken hitzak, aldiz, hauek izanen dira: **erran ditzkizuenak oro egiak baitira**, Koldo Amestoy XUTI dadila Sarako plazan!

Goresmenak bihurtzen dizkiot ere Marie-José Basurko idazle bikainari.

Pantxoa ETCHEGOIN  
Euskal kultur erakundeko zuzendaria

Sara, 2020ko irailaren 7a